

4. artikulua- Onuradunen betekizunak

Laguntza eskura dezakete pertsona fisikoek (bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideek), baldin eta jarraian jasotako betekizunak betetzen badituzte.

Eskaera bizikidetzaren unitateko kide bakarrak egin behar du, zeinak honako betekizun hauek bete beharko baititu:

1.- Pandemiaren ondorioz langabezian edo aldi baterako enplegu erregulazioko espediente baten barruan dauden edo diru sarrerak galdu dituzten pertsonak (autonomoak barne) izan daitezke onuradun.

2.- Eskatzaileak Legutioko Udalerrian erroldatuta egon behar du eta udalerrian bizi benetan, 2020ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik.

3.- Eskatzaileak adinez nagusia izan behar du edo legez emantzipatuta egon.

4.- Alarma egoera hasi zenetik, familia unitatearen sarrera garbiak (edozein kontzeptu dela eta jasoak) ezin dira izan hauek baino handiagoak:

FAMILIA UNITATEKO KIDEAK	OROKORRA – EURO/HIL, GEHIENEZ ERE
1	800,00
2	1.000,00
3 edo gehiago	1.200,00

5.- Eskatzaileak egunean izan behar ditu Legutioko Udalarekiko zerga betebeharrak (ofizioz egiaztatuko da).

6.- Laguntza ematearen aldeko txosten arrazoitua eduki behar da, udaleko gizarte zerbitzuek egina. Laguntza jasotzen jarraitu ahalko dela bermatzeko, premia izaten jarraitzen duela egiaztatu beharko du onuradunak, eta hori esplizituki jasota geratuko da laguntza emateko hasierako proposamenarekin batera joango den jarraipenaren txosten sozialaren bidez.

5. artikulua.- Titular bat baino gehiago aldi berean

Bizikidetzako bi unitatek edo gehiagok etxebizitza edo bizitoki bera partekatzen badute, gehienez ere bi laguntza eman ahal izango dira etxebizitza edo bizitoki horretan. Horiek horrela, eskaera lehenbizi egin dutenei emango zaie laguntza.

6. artikulua.- Dirulaguntzen zenbatekoa

Artikulu honetan ezarritako aldi osoan emango den laguntzaren gehieneko zenbatekoa ezingo da izan taulan jasotakoa baino handiagoa, bizikidetzaren unitate onuradun bakoitzeko:

FAMILIA UNITATEKO KIDEAK	OROKORRA – EURO GEHIENEZ ERE
1	1.200,00
2	1.800,00
3 edo gehiago	2.200,00

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan gobernuak deklaraturako alarma egoeraren hasieratik urte honen amaiera arteko aldiaren bizikidetzaren unitateak eskatzen dituen oinarriko premiak estaltzeko emango da laguntza, baldin eta aurrekontu kreditua (57.000,00 euro) agortu ez bada, eta, beraz, aurrekontu mugara heldu arte, salbu eta legez onetsitako aurrekontu aldatetako espedientea izapidetzen bada

Emango diren zenbatekoak:

Kide bakarreko bizikidetzaren unitatea: 120,00 euro hilean

Bi kideko bizikidetzaren unitatea: 180,00 euro hilean

Hiru kideko edo gehiagoko bizikidetzaren unitatea: 220,00 euro hilean

Eman beharreko zenbatekoa kalkulatzeko egun naturalak hartuko dira kontuan.

7. artikulua- Eskaerak, agiriak eta aurkezteko epea

1.- Laguntza eskabideak eskabide eredu ofizialaren arabera izango dira, eta Legutioko Udaleko udal erregistroan aurkeztu beharko dira (Carmen kalea 10, Legutio), edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako bideetako bat erabiliz.

2.- Eskaera inprimakiarekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Familia unitateko kide guztien NANen edo pasaporteen fotokopiak
- Familia eroldaren ziurtagiria (ofizios egingo da)
- Kontratua eta alarma egoera deklaratu aurreko aldiko azken bi nominak
- Lan kontratuaren aldi baterako etetea egiaztatzen duen dokumentazioa, eta, hala badagokio, langabezia prestazioaren ebazpena edo ziurtagiria
- Langabeziaren egiaztatzea, hala badagokio
- Familia unitateko banku produktu guztien azken sei hilabeteetako mugimenduak
- Eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duten egiaztapenak
- 2019ko urtariletik ekainera bitarteko aldiari eta 2020ko aldi berari dagokion fakturazioa (autonomoen kasuan bakarrik)
- Eskaera izapidetzean hura behar bezala balioesteko eska daitekeen beste edozein agiri

3.- Eskabidean jarri beharreko datuen bat edo aurreko paragrafoan zerrendatutako nahitaezko agiriren bat falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzendu edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela. Administrazioak eskaera horren esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi beharko du.

4.- Eskaerak aurkezteko epea oinarrien deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratu ondorengo egunean hasiko da, eta urriaren 16an amaituko da, egun hori barne. Administrazio erabakiaren bidez, epea kanpo aurkeztutako eskabideak ez dira izapidetzeko onartuko, gaiaren muinean sartu gabe.

8. artikulua- Dirulaguntza ordaintzeko era

Onuradunei hileroko ordainduko zaie dirulaguntza, banku sarrera bidez.

9. artikulua- Prozeduraren izapideak eta ebazpena

Laguntzak emateko prozedura honako hau izango da:

1. Egoera sozioekonomikoa dela eta laguntza hauen onuradun izan nahi duten pertsonen eskabidea egin beharko dute udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuan.

2. Gizarte zerbitzuek betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, txosten soziala egingo da laguntza emateari/ukatzeari buruz.

3. Alkate-lehendakariak emango du aurkeztutako eskabideak onartzeko edo ukatzeko ebazpena, eta ebazpenak ebatzeko eta jakinarazteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, eskabidea aurkeztu den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori amaitu baino lehen berariazko ebazpenik ematen ez bada, dirulaguntzaren eskabidea baietsizat joko da. Ebazpen horretan

honako hauek jasoko dira: laguntzaren zenbatekoa, zein aldirako ematen den eta, aurreikus badaiteke, ofiziozko berrikuspenaren/luzapenaren data.

4. Ezezko ebazpena arrazoitu egin beharko da, eta udalak eskatzaileari jakinaraziko dio.

5. Hala laguntza bat kautelaz edo aldi baterako eteteko, nola azkentzeko, nahitaezkoa izango da txosten soziala egitea.

10. artikulua- Laguntza ukatzeko edo azkentzeko arrazoiak

Laguntza ekonomikoa jasotzeko eskubidea honako arrazoi hauengatik ukatu edo azkenduko da:

1. Titularrak laguntza emateko eskatutako betekizunen bat betetzen ez badu edo aldi baterako edo behin betiko galtzen badu.

2. Titularra hiltzen bada, pertsona bakarreko bizikidetzaren unitateen kasuan.

3. Titularrak atzera egiten badu edo laguntzari uko egiten badio.

4. Titularrak eskaeran edo harekin batera doazen agirietan agertu beharreko datuak edo informazioak ezkututzen edo faltsutzen baditu, edo laguntza ekonomikoa lortzeko edo mantentzeko beste edozein iruzurrezko ekintza gauzatzen badu.

5. Behar bezala arrazoitutako beste edozein.

11. artikulua- Laguntza aldatzea

1.- Erreferentziako oinarrizko gizarte zerbitzuak hasi ahal izango ditu zenbatekoa aldatzeko eta laguntza ekonomikoak jasotzeko eskubidea eteteko eta azkentzeko prozedurak, ofizioz edo alderdietako batek eskatuta.

2.- Zenbatekoa aldatzeko arrazoiak:

a) Bizikidetzaren unitateko kideen kopurua aldatzea. Kide kopurua gutxitu egin dela ulertuko da unitateko kide bat edo gehiago ohiko etxebizitzatik edo bizitokitik kanpo badago hilabetez edo luzaroago.

b) Laguntza kalkulatzeko oinarri izan diren baliabideak aldatzea.

c) Laguntza kalkulatzeko oinarri izan diren kontzeptuen zenbatekoak aldatzea.

3.- Zenbatekoa aldatzen bada, laguntzaren sortzapena eta zenbateko berriaren ordainketa aldaketa eragin duen gertaera gertatu eta hurrengo hilaren lehen egunetik aurrera egingo dira.

12. artikulua- Atzera egiteak eta uko egiteak

1. Prozeduraren edozein fasetan, eta ebazpena eman aurretik, eskatzaileak edo, hala bada- gokio, haren legezko ordezkariak, berriaz egin ahal izango dio uko eskaerari.

2. Araudi honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, eskatzailea laguntza emateko ebaz- penaren eman baino lehen hiltzen bada, amaiera emango zaio prozedurari, berriazko atzera egitearen baldintza berberetan.

3. Araudi honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, eskatzaileak edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak dokumentazioa aurkezten ez badu, edo eskatzaileak administrazio espedientea bideratzeko eragozpenak jartzen baditu, laguntza ekonomikoa emateko ebazpena eman baino lehen, prozedurari amaiera emango zaio, berriazko atzera egitearen baldintza berberetan.

4. Eskatzaileak edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak, uko egin ahal izango die dirulaguntza emateko ebazpenean aitortutako eskubideei.

5. Araudi honetan aurreikusitako esanbidezko atzera egitea edo uko egitea idatziz edo eginbide bidez formulatuko da, legitimatutako pertsona eskaera egin zuen oinarritzko gizarte zerbitzuan edo, hala badagokio, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bulegoetan agertuz.

6. Atzera egitea edo uko egitea formalizatu ondoren, eskaera artxibatu egingo da eta espedienteari amaiera emango zaio, organo eskudunak ebazpena eman ondoren.

13. Artikulua- Onuradunen betebeharrak

Onuradunen betebeharrak dira, oro har, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1 eta 46. artikuluetan ezarritakoak, eta, bereziki, honako hauek:

a) Laguntzak irauten duen bitartean bizikidetzeta unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo laguntza ekonomiko oro baliatzea.

b) Eskuragarri dauden baliabideak arduraz administratzea eta arduraz jokatzeta, egoera ekonomikoa edo bazterkeria egoera larriagotu ez dadin.

c) Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein baldintza subjektibo zein objektibo aldatu bada, udalari aldaketaren berri ematea.

d) Administrazioaren aurrean agertzea eta harekin lankidetzan aritzea, hala eskatzen bazaio.

14. artikulua- Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Dirulaguntza hau bateragarria da beste edozein administrazio edo erakunde publikok xede bererako eman ditzakeenekin.

Hala ere, udal dirulaguntza hauen eskatzaileek kontuan hartu beharko dute onuradun diren eta/edo jasotzeko eskubidea izan dezaketen beste laguntza batzuen bateragarritasun eta batearazintasun araubidea, iruzurrezko jarduerak saihesteko.

Udal dirulaguntza hauen onuradunek jakin behar dute laguntza hauek bateraezinak izan daitezkeela beste administrazio batzuek ematen dituztenekin, eta, beraz, onuragarrientzat jotzen dutena aukeratu ahal izango dutela. Horretarako, oinarritzko gizarte zerbitzuaren laguntza izango dute.

15. artikulua- Arau hausteak eta emandako dirulaguntzak itzultzea

Dirulaguntzen arloko arau hauste eta zehapenei dagokienez, osorik aplikatuko dira Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan jasoriko arauak eta haren arautegia onetsi zuen 887/2006 Errege Dekretuak IV. tituluan xedatutakoa.

16. artikulua- Araudi aplikagarria

Oinarri arautzaile hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua onesten duena, eta Legutioko Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza.

Legutio, 2020ko irailaren 7a

Alkatea

JON ZUAZO ZUBERO